

2025eko MARTXOAREN 3AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA 6 zk.

Udaletxeko batzar-aretoan, 2025eko martxoaren 3an, arratsaldeko ordu batean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko.

Batzarkide hauek bertaratu dira:

Batzarburua XABIER TXURRUKA FERNANDEZ JN.

Batzarkideak GARBIÑE OIARBIDE IRURETAGOiena AND
IKER BASURKO DE MIGUEL JN.
GERVASIO GABIRONDO FERNANDEZ JN.

Jarduneko Idazkaria XABIER ARANBURU SOLDEVILLA JN.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaia aztertu eta eztabaidatu ditu Tokiko Gobernu Batzarrak.

EGUNeko AZTERGAIK

1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONESTEA

2025eko otsailaren 17ko bilkuraren akta aho batez onartu dute, zuzenketarik egin gabe.

2.- LEGE ZAHARREN ENPARANTZA 1EKO JABE ELKARTEAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA:

- Soto gaineko forjatuan (Lege Zaharren Enparantza 1eko portxean) inpermeabilizazio-lanak egiteko beharrezko baldosak hornitzeko.

Espedientea: 2024N9890001

2024ko azaroaren 18an, M. Fatima Cazaliz Zulaica andreak, Lege Zaharren Enparantza 1eko Jabe Elkartearen izenean, baimena eskatu zuen eraikinaren soto gaineko forjatuan (portxea dagoen zatian) inpermeabilizazio-lanak egiteko.

ZHAPOk 3.3.01 artikuluan honako hau ezartzen du:

3.3.01. artikulua. Erabili, zaindu eta birgaitzeko beharra

4. Erabilera publikoko zortasuna duten titulartasun pribatuko lurzoruen kasuan (sestrapeko edo espazio publikoaren gaineko -karrerapeak- erabilera pribatuko eraikuntzak dituzten plaza eta kaleak), erabilera publikoa duten gune eta elementuen garbiketa, zaintza eta konponketa Udalaren ardura izango dira; aitzitik, egitura mantentzea -karrerapeak eta erabilera publikoko espazioak aldi berean erabilera pribatu bateko eraikuntzaren zati edo sabai direnean-, eta egitura horiek iragazgaiztea eraikinaren jabeen kontura izango dira. Jabeek, erabilera publikoko espazioan eraginez iragazkaizte-obrak, egiturak sendotzea edo antzeko lanak egiten dituztenean, jabeek espazio horiek, erabiltzeko moduan ezarri beharko dute, udal-teknikarien aginduak jarraituta.

Obrak erabilera publikoa duen portxean egingo direnez, Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuak zoladuran izango diren eraginak aztertu zituen. 2024Z8250018 espedienteko 0647/2024 txostenean honako hau adierazi zen:

AURREKARIAK

Udalak Lege Zaharren Enparantza 1, 2, 3 eta 4 eskaratzek osatzen duten erabilera publikoko izaera duen portxe horretan, egun dagoen zoladura irristakorra dela adierazten duten kexak jaso dituen. Hori egiaztatzeko, Udalak entseiu batzuk egin zituen eta egungo baldosak indarrean dagoen araudia ez duela betetzen ziurtatu zen. Hori horrela, eta arazoa konpondu ahal izateko, karrerapean tratamendu bat egitea pentsatu zen. Momentu hartan jakin genuen, Lege Zaharren Enparantza 1eko Jabe Elkartek sotoan dituzten hezetazun arazoak konpontzeko inpermeabilizazio lanak egin behar zituela eta horretarako beharrezkoa zutela portxeko egungo zoladura eraitsi eta berria jartzea.

Hori horrela, ez zuen zentzurik udalak aurrez tratamendua egitea eta horren gastu ekonomikoa ordaintzea, eta ondoren Jabe Elkartek baldosa eraistea.

Azaldutako kontuan hartuta, honakoa adostu zen Lege Zaharren Enparantza 1eko Jabe Elkartearen eta Udalaren artean:

- Udalak ez zuela aktuaziorik egingo egungo zoladuran.
- Komunitateak inpermeabilizazio lanak egiterakoan, Udalak beharrezko baldosa hornituko ziola.

Baldosa berriak indarrean dauden irisgarritasun arauak beteko ditu.

- Adierazitakoa bideratzeko Komunitatea eta Udalaren arteko lankidetzaren bitartez tramitatuko zela.

Hori horrela. Jarri beharreko zoladura hau dela erabaki da:

BALDOSA GRAN GRANITICA ROSA 40X40X4 REF. L-40G de TERRAZOS RUIZ.

Beharrezkoa materialaren kostua 1.409,77 euro izango da (BEZ barne)

Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuak txostena egin eta hala proposatuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehena.- Onartzea Lege Zaharren Enparantza 1eko Jabe Elkartearen eta Zarauzko Udalaren artean sinatu beharreko lankidetzaz hitzarmena, SOTO GAINEKO FORJATUAN (LEGE ZAHARREN ENPARANTZA 1EKO PORTXEAN) INPERMEABILIZAZIO-LANAK egiteko beharrezko zoladura hornitzeko.

Bigarrena.- 1.409,77 euroko gastu-konpromisoa onartzea (BEZa barne), lankidetzaz hitzarmenean jasotako konpromisoei aurre egiteko. Zenbateko hori Udalaren aurrekontu-partida honetatik ordainduko da: 0402.210.01.453.00 2025.

Hirugarrena.- Alkateak edukiko du hitzarmena sinatzeko eskumena.

LEGE ZAHARREN ENPARANTZA 1EKO JABE ELKARTEAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, SOTO GAINEKO FORJATUAN (LEGE ZAHARREN ENPARANTZA 1EKO PORTXEAN) INPERMEABILIZAZIO-LANAK EGITEKO BEHARREZKO BALDOSAK HORNITZEKO

BILDU DIRA

Alde batetik, XABIER TXURRUKA FERNANDEZ, Zarauzko Udaleko alkatea, Zarauzko Udalaren izenean (helbidea: Zigordia kalea 13, Zarautz).

Beste aldetik, ***** andrea, Lege Zaharren Enparantza 1eko Jabe Elkartearen ordezkari gisa (helbidea: *****).

Bi aldeek legezko eta jarduteko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta aurrekari hauek adierazten dituzte:

AURREKARIAK

LEHENA.- Lege Zaharren Enparantza 1eko Kabe Elkarreak Zarauzko Udalari jakinarazi dio soto gaineko forjatuan (Lege Zaharren Enparantza 1eko portxean) inpermeabilizazio-lanak egingo dituela, horretarako erabilera publikoko eremuan oraingo zoladura eraitsi eta berria jarrita.

Horiek horrela, elkartutakoek, beren gain duten ordezkariarekin, honako hau hitzartzen dute:

KLAUSULAK

LEHENA.- Lege Zaharren Enparantza 1eko Jabe Elkarreak ordainduko du Lege Zaharren Enparantza 1eko proiektuko obra.

BIGARRENA.- Zarauzko Udalak, berriz, obra burutu ahal izateko beharrezkoa den zoladuraren kostua ordainduko du, hitzarmenaren aurrekarietan jasotakoaren arabera. Hornidura horren kostua **1.409,77** eurokoa da, BEZa barne (aurrekontu-partida: 0402.210.01.453.00 2025).



ZARAUZKO UDALA

HIRUGARRENA.- Obran sortu daitezkeen arazoak edozein izanda ere, obra baimenean adierazitako zoladura-eremua egiteko beharrezkoak diren m²-ak hornituko dira (70 m²). Gehiago behar izanez gero, Lege Zaharren Enparantza 1eko Jabe Elkartearen kontura izango da. Soberan geratzen dena Udalari emango zaio (Udal Brigada)

LAUGARRENA.- Zarauzko Udalak zoladura obrara eramango du. Dena den, bi erakundeak koordinatuko dira epeak, hornidura-puntuak etab. zehazteko.

BOSGARRENA.- Lege Zaharren enparantza 1eko sotoaren gaineko forjatuan (portxean) egitekoak diren inpermeabilizazio-lanak erabilera publikoko eremuan zoladura eraitsi eta berria jarrita egingo dira, eta Lege Zaharren enparantza 1eko Jabe Elkartearen kontura izango dira, baita obra-zuzendaritzaren eta segurtasun eta osasun koordinatzailearen lanen kontratazioa ere.

SEIGARRENA. - Lege Zaharren Enparantza 1eko Jabe Elkarreak eta Zarauzko Udalak jarraipen-batzorde bat sortuko dute, lankidetzaz-hitzarmenean adierazitako xedeak betetzen direla bermatzeko. Jarraipen-batzordea erakunde bakoitzeko bina ordezkari osatuko dute. Hauek izango dira beren zereginak:

- Hitzarmena betetzen dela zaintzea.
- Bi erakundeen arteko lotura izatea.
- Hitzarmena interpretatzerakoan edo hura gauzatzerakoan sortzen diren arazoak konpontzea.

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmen honek ez du ekarriko alderdi parte-hartzaileek beren eskumenei uko egitea edo horiek aldatzea. Esku hartzen duen alderdi bakoitzak hitzarmen honen arabera dagozkion konpromisoen erantzukizunak bakarrik hartuko ditu bere gain.

ZORTZIGARRENA.- Hitzarmen hau iraungi egingo da egindako lanen berme-epaia bukatzen denean edo alderdi sinatzaileek hala adosten dutenean.

Aldeetako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteak ahalmena izango du zehatz-mehatz bete ditzan eskatzeko edo hitzarmena amaitutzat eman dadila eskatzeko. Hitzarmena suntsiarazten bada, alderdiek adostuko dituzte indarrean dauden ekintzak bukatzeko eta ordaintzeko baldintzak.

Era berean, hitzarmena suntsiarazteko arrazoi izango da hitzarmenean edo beste edozein legetan aurreikusitako beste edozein.

3.- OBRA-LIZENTZIA:

- Hosokawa SL. Errotaberri Industrialdean (Plan Partzialeko 5. Partzela) pabiloia eraikitzeke.

Espedientea: 2023H7300012

Departamentua: Hirigintza eta Ingurumena

Gaia: Pabiloia eraikitzea. OBRA-LIZENTZIA

Sustatzailea: HOSOKAWA SL

Kokalekua: Errotaberri Industrialdea (Plan Partzialeko 5. partzela)

Proiektu teknikoa: ALD ingeniería, arquitectura y equipamiento, SLP.

Igor Aldanondo Barandiaran (industria-ingeniaria)
2024ko apirilaren 3an ikus-onetsia (GIIEO) + ekaineko eranskina
Aurrekontua (udal zergen kalkuluen ondorioetarako): **1.384.230,37 €**

Errotaberri Industrialdean (Plan Partzialeko 5. Partzela) pabilioia eraikitzeko eta bertan jarduera bat ezartzeko obra- eta jarduera-lizentziak eskatu ziren.

Partzelak badu lurzoruaren kalitatearen aldeko adierazpena, ingurumen-organoak emana (2025eko otsailaren 13ko ebazpena).

Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak eta Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuak txostena egin eta hala proposatuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Hosokawa SL enpresari obra-lizentzia ematea, Errotaberri Industrialdean (Plan Partzialeko 5. Partzela) pabilioia eraikitzeko, jabetza eskubidea izan ezik eta hirugarrengoa kaltetu gabe.

Bigarrena.- Obra bat etorriko da eskaerarekin batera aurkeztutako proiektu teknikoarekin. Ondorengo baldintzetan eman da lizentzia:

a.- Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak ekainaren 14an egindako 361/2024 txostenaren eta Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuak uztailearen 8an egindako 392/2024 txostenaren eranskinetan zehaztu direnak (akordio honen jakinarazpenari erantsiko zaizkio).

b.- Obrak hasi aurretik eta gehienez ere **15 eguneko epean**, honako hau aurkeztuko da:

- Argituko da emakumeen aldagela zein sute-sektoretan dagoen eta nola betetzen den eremu honetako sektorizazioa.
- Eraisketa eta eraikuntzako hondakinen kudeaketa egokia egingo dela bermatzeko **2.479,48 euroko fidantza** jarri dutela adierazten duen ziurtagiria. Fidantza hori itzuli egingo da, hondakinen kudeaketa egokia dela ziurtatzen duten egiaztagiria aurkeztu (hondakinen kudeaketaren bukaerako txosten egiaztatua) eta Udalak aldeko txosten teknikoa egin ondoren.
- Zuinketa planoak, DWG formatuan.
- Urak isurtzeko baimena (ordenantza C.5.6.).
- Obren inpaktu akustikoaren azterketa.

Fidantza jartzeko kontu korranteak:

KUTXABANK: 2095-5076-41-1060000246 LABORAL KUTXA: 3035-0029-62-0290900002

Hirugarrena.- Udaleko zerbitzu ekonomikoek egindako likidazioetan adierazitako zenbatekoak ordaindu beharko dira, egoki diren likidazio osagarriak egiteari utzi gabe, halakorik egokituko balitz.

Laugarrena.- Pabiloiaren lehen erabilerarako lizentzia emateko, eraikuntza amaitu ondoren, aldez aurreko baldintza gisa eskatuko da Udalak jasotzea 5. partzelari lotutako poligonoaren urbanizazio-zatia gutxienez. Ondorio horietarako, honako hauek hartuko dira partzelari lotutako urbanizazioaren zatitzat:

- F bidea (behin-behinean 2024ko ekainean jaso)
- D bidea
- H bidea

4.- ESKARI GALDERAK

Ez du inork hitz egin gai-zerrendako puntu honetan.

Aztertzeko besterik ezean, bilkurari amaiera eman diote, arratsaldeko ordu bata eta bost direnean eta nik, jarduneko idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.

